


EAE-KO POPULAZIO ATZERRITARRARI EGINDAKO AURRENEKO MAKRO-INKESTA

Egoera administratiboa eta lan-egoera, bazterketa- edo integrazio-pertzepzioa

Ikuspegiak EAEn bizi diren hamalau nazionalitate garrantzitsuenetako 3.101 pertsonekin landu duen inkestaren -alor honetan aurrenekoak- datuak aurreratuko ditugu panoramika honetan. Inkesta 2006ko azaroaren eta 2007ko martxoaren artean egin da. Laster ezagutaraziko ditugu Latinoamerikako, Asiako eta Afrikako populazioari buruzko txosten osoak. Egoera administratiboa eta lan-egoera, jasan izan duten bazterketa edo diskriminazioa eta zein neurriraino sentitzen diren integratuta eta gus-tura; gai horien ingurukoak dira panoramika honetako datuak. Era berean, erroldatu gabeko populazio atzerritarri buruzko estimazioa ere egin dugu.

1. Egoera administratiboa eta lan-egoera

Zenbat denbora da Euskal Herrian bizi zarela?



Populazio atzerritarren %30,3k bi urte baino gutxiago darama EAEn bizitzen; %55,8k bi eta sei urte bitartean eta %14k sei urtetik gora.

Nolanahi ere, joera orokor honi dagokionez, badira hainbat ertz deigarri atzerritarren jatorriaren arabera:

- Latinoamerikatik etorritako pertsonen %65,4k bi eta sei urte bitartean darama hemen bizitzen, ia 10 puntu batez bestekoaren gainetik. %8,9k baino ez darama sei urtetik gora.
- Bestalde, Afrikatik eta Asiatik etorritakoak dira beterranoenak. %21,0ek eta %18,9k sei urte baino gehiago darama EAEn bizitzen. Beterranoenak izanagatik, horrek ez du esan

nahi atzerritar gehienak hangoak direnik; aitzitik, Amerikatik (Latinoamerikatik) etorritakoak dira gehienagoak.

- Europatik etorritakoak beterranoenak izan dira inoiz, baina gaur egun EAEn bizi den populazio europarraren %47,2k bi urte baino gutxiago darama gurean. Batez ere errumaniarrak dira, gero herrialdeka ikusiko dugunez.

Herrialdeka:


- Saharaz hegoaldeko herritarren %31,4k, txinatarren %29,5ek, marokoarren %21,6k eta, areago, senegaldarren %15,8k sei urtetik gora darama EAEn bizitzen.
- Nazionalitate beterrano hauen multzo berean daude Portugaldik etorritakoak ere: portugaldarren %26,3k sei urtetik gora darama EAEn bizitzen.

- Aldiz, Latinoamerikako populazioaren %8,9 baino ez zen bizi EAEn 2001a baino lehenago. Datu hori, oro har, argentinarrei, kolonbiarrei eta ekuadortarrei lotutakoa da. Alabaina, Boliviatik etorri direnei dagokienez, %0,8 beste-rik ez zen bizi EAEn duela sei urte. Eta ezin dugu ahaztu,

gaur egun, herritar gehien ekartzen duen bigarren nazioa dela Bolivia.

- Boliviarren joeraren antzekoa da errumaniarra (%3,5) eta pakistandarrena (%4,2).

Lortutako ikasketa-maila



Atzerriko populazioak azaldutakoaren arabera, %14,9k unibertsitate-ikasketak ditu; %45,7k bigarren mailako ikasketak eta %31,7k lehen mailakoak. %7,1ek, berriz, analfabeto funtzionalak edo analfabetoak direla jakinarazi du.

Aldiz, bigarren mailako eta unibertsitateko ikasketak dituztenak kontinente eta/edo geografia-eremuaren arabera bilduz gero, heziketa-maila handiena Latinoamerikak erakusten du (%76,0), eta gero datoz Afrika (%52,1), Asia (%47,1) eta azkenik, Europa (%33,4).

- Nazionalitatearen arabera, Argentina nabarmentzen da: herrialde hartatik etorritakoen %34,4k dio unibertsitate-ikasketak dituela, %54,7k bigarren mailakoak eta %8,9k baino ez lehen mailakoak.
- Boliviarren, Saharaz hegoaldeko herritarren eta ekuadortarren artean ere nabarmena da unibertsitate-ikasketak dituztenen kopurua.
- Kolonbiarren ikasketa-maila ere aipatzekoa da: %65,1ek egin du bigarren mailako hezkuntza.
- Brasildarrak, errumaniarrak, portugaldarrak eta senegaldearrak dira ikasketa-maila gutxien dutenak.

Egoera administratiboa

Atzerriko populazioaren egoera administratiboa modu honetara banatzen da, inkestako datuen arabera: %22,8 egoera irregularrean dago, %8,5 Espainian nazionalizatuta, %4,9 EBko herrialde batekoa da, eta %63,8 bizitzeko baimen motaren batekin dago hemen. Dena den:


Irregularitasun-egoera ia hirukoiztu egiten da populazio errumaniarraren kasuan, nahiz eta euren estatusa aldatu egin den inkesta egin zenetik, Errumania EBn sartu baita gerozko honetan.

Boliviatik etorritakoek ere antzeko egoera bizi dute: %58,3 egoera irregularrean legoke eta %40,5 bizitzeko baimen motaren batekin.


Irregularitasun-indizeak batez bestekoaren gainera eragiten die senegaldarrei, Saharaz hegoaldeko herritarrei eta brasildarrei ere. Nazio hauetatik etorritako pertsonen heren bat dago egoera horretan.

Gainerako nazionalitateak batez bestekoaren azpitik daude, eta oso azpitik kolonbiarrak, ekuadortarrek eta txinatarrak.

Oro har, araudiari dagokionez, Ekuador, Txina, Kolonbia, Argentina, Aljeria eta Marokotik etorritakoak daude egoerarik erregularrean.



Erroldatzea




Atzerriko biztanleen %91,1ek dio erroldatuta dagoela eta %8,5ek ez dagoela. Gainera, %96,0k dio bizi diren herrian bertan dagoela erroldatuta, eta %3,5ek, aldiz, beste udalerrri batean.

Erroldatu gabeko %59,1ek dio ez dela saiatu erroldatzen, eta %31,8k, berriz, saiatu, saiatu dela baina ez duela lortu. %9,1ek ez dio galdera honi erantzun.

- Erroldatze-indize handiena duten kontinenteak edo geografia-eremuak Asia eta Latinoamerika dira.
- Herrialdeka, nazionalitate txinatarra, ekuadortarra eta kolonbiarra duten atzerritarren ia guzti-guztiek esan dute erroldatuta daudela.
- Nazionalitate ia gehienak batez bestekoan daude.
- Baina, batez bestekoaren oso azpitik urruntzen dira senegaldarrak (%17,8 dago erroldatu gabe), boliviarrak (%15,8) eta errumaniarrak (%15,4).

Erroldan sartuta ez dauden atzerritarren kalkulua



Zehatz esanda, landa-lana egiterakoan, laginaren %8,9k esan du ez dagoela erroldan sartuta.

Kopuru horretatik abiatuta eta laginaren neurria kontuan harturik, tarte fidagarri bat kalkulatu genezake, EAEen erroldatu gabe dauden atzerritarren ehuneko errealearen mugen berri jakiteko eta zenbatzeko.

Estatistikaren aldetik %99ko konfiantza-maila izanik, uste dugu EAEen erroldan sartu gabe dauden atzerritarren portzen-

taia erkidegoan bizi diren etorkin guztien %7,58 eta %10,21 artean egon daitekeela.

Ondorioz, 2007ko urtarrilaren 1eko behin-behineko erroldaren datuetan oinarrituta, uste dugu EAEen orotara atzerritik etorritako 106.155 pertsonatik 109.263 pertsonara bitartean biziko direla (konfiantza-maila %99koa).

Datu horietatik abiatuta (%99ko konfiantza-maila dute), adierazi genezake etorkin-kopuru erreala %4,95 eta %5,10 artean dagoela, EAEko biztanleria osoa kontuan harturik.

Lan egoera

EAEn bizi diren biztanle atzerritarren %69,3 lanean ari da, %17,8 langabezian dago eta %12,4 lanik gabeko biztanleria da: haurrak, jubilatuak...

- Lanean ari diren biztanleetatik %88,5 besteren kontura ari da, eta %11,4 bere kontura. Azken hauen artean, aipatze-koa da beren kontura lanean ari diren txinatarren (%47,8), pakistandarren (%23,0) eta senegaldarren (%20,6) kopurua.
- Besteren kontura lanean ari direnen artean, %26,0k muga-gabeko kontratu du, %49,3k behin-behinekoa eta %23,4k dio ez duela kontraturik.
- Azkenik, kontratua duten atzerritarren %91,1ek hemen bertan lortu du, eta %5,4k jatorriko herrialdean.


Kontinenteka sailkatuta, ikus dezakegu:

- Afrikarren artean %50,1 baino ez direla ari lanean eta, aldiz, langabezia %34,2ra igotzen dela. Era berean, lanik gabeko pertsonen portzentajea ere handiagoa da: %15,2. Neurri batean, emakume marokoarrak gutxiago sartu dire-lako lan munduan.
- Amerikatik etorritako populazioak eta Asiakoak dauka oku-pazio-tasa handiena, %76,9 eta %83,3 hurrenez hurren.

Herrialdeka:


- Enplegu-tasari dagokionez, txinatarrek (%87,1) eta ekua-dortarrak nabarmentzen dira (%84,3).
- Euren artean langabe asko daudelako nabarmentzen dira Saharaz hegoaldeko herritarrek (%46,7), aljeriarrak (%37,7) eta marokoarrak (%31,7).

Lanik gabeko populazioari dagokionez, batez bestekoaren gainetik nabarmentzen dira errumaniarrak (%22,6), marokoarrak (%19,7) eta, azpitik berriz, pakistandarrek (%4,2) eta



senegaldarrak (%5,0). Bi nazionalitate horietako herritarren artean gehiago dira gizonezkoak, besteen artean baino; hortik lanik gabeko portzentaje txiki hori.

Diru-sarrera eta bestelako lan-baldintzen inguruak



EAEn finkatutako atzerritarren %51,7k dio 1.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituela hilean. %33,1ek jakinarazi du 1.000 eta 1.500 euro artean jasotzen duela eta %7,6k 1.500 eurotik gora. Azkenik, %7,6k ez du erantzun.

Boliviarrak %73,7k, errumaniarren %64,1ek eta brasildar, kolonbiar eta ekuadortarren %61,3k hilean 1.000 euro baino gutxiago irabazten duela dio.

Pakistandarrena da kasu bitxia: inork ez du esaten 500 eurotik behera jasotzen duenik; %31,1ek dio 1.000 euro baino gutxiago irabazten duela, baina, aldiz, %58,1ek esaten du 1.000 eta 1.500 euro artean jasotzen duela.


Diru-sarrera sendoenak dituztenen artean, portugaldarrak eta argentinarrek daude: portugaldarren %34,3k eta argentinarren %9,5ek dio 1.500 eurotik gora irabazten duela hilean.

Atzerritarrek, euren lan nagusiagatik, batez beste 810 euro jasotzen dutela aitortzen dute. Batez besteko horren gainetik aitortzen dute asiarrak (830 euro) eta europarrak (975 euro) eta, aldiz, azpitik amerikarrek (760) eta afrikarrek (767).

Oro har, populazio atzerritarrek dio, batez beste, 1,08 lan dituela, astean 43,4 ordu egiten duela lan eta %48,5ek aste-buruetan egiten duela lan.

2. Bazterketa- edo diskriminazio-pertzepzioa

Euskal Herrian bizi zaren denbora honetan, zenbateko maiztasunarekin eman zaizu aditzera mehatxu ekonomikoak zirela euskaldunentzat (lana kentzen diezula, laguntza sozialei probetxua ateratzen diezula, etab.)?



Atzerriko immigranteen 4tik ia 3k diote inoiz edo ia inoiz ez diotela aditzera eman euskaldunentzat mehatxu ekonomikoak direnik:


- Asierren eta europarren artean bazterketa-pertzepzioa edo ustea nabarmen txikiagoa da amerikarrena edo afrikarrena baino.
- Amerikatik etorritakoen artean, argentinarrak nabarmentzen dira, besteek baino arbuio gutxiago sentitzen dutelako.

- Afrikar jatorria dutenen artean, marokoarrek edo aljeriarrek diskriminazio ekonomiko gutxiago jasaten dute Senegaldik edo Afrika beltzetik datozenek baino.
- Asiatik etorritakoen artean ez dugu bereizketarik atzeman.
- Europatik etorritakoen artean, portugaldarrek bazterketa gutxiago sumatzen dute ekonomia aldetik errumaniarrek baino.


Euskal Herrian zaudenetik, zure itxura dela-eta, nolako maiztasunez ikusi duzu zure burua baztertuta? Zenbat aldiz konturatu zara euskaldunek begiratu, zuri buruzko gauza negatiboak esan eta bestelako gutxiespen-jarrerak dituztela?

Ia hiru etorkinetik bik aitortu du, bere itxura fisiko dela-eta, euskaldunek ez dutela inoiz edo ia inoiz baztertu, ez duela begirada gaiztorik igarri, ez diotela gauza negatiborik esan eta ez diotela gutxiespen-jarrerarik erakutsi:

- Asiakoek eta europarrek, amerikarrek eta, batez ere, afrikarrek baino gutxiago nozitzen dute bazterketa.
- Amerikatik datozenen artetik, argentinarrak gainarokoek baino gutxiago nozitzen dute bazterketa.
- Afrikatik datozenen artetik, marokoarrek eta argeliarrek gutxiago nozitzen dute bazterketa edo gutxiespena senegaldarrek eta Afrika Beltzetik datozenek baino.
- Asiatik datozenen artean ez dugu desberdintasunik antzematen.
- Europakoek artean, portugaldarrek errumaniarrek baino gutxiago igartzen dute bazterketa



Euskaldunek nolako iritzia dute zure herrialdeari buruz?




Etorकिनен %43,2k uste du euskal gizarteak beraiei buruzko iritzi positiboa edo oso positiboa duela:

- Amerikarrek eta asiarrek uste dute euskaldunek hobeto ikusten dituztela beraiek, europarrak eta afrikarrak baino.
- Amerikatik etorritako pertsonen artean, argentinarrak nabarmentzen dira, euskaldunen artean irudi hobea dutela uste dutelako. Aitzitik, kolonbiarrek uste dute irudirik okerrera dutela euskaldunen artean.

- Afrikatik etorritakoen artean ez dugu desberdintasun nabarmenik antzematen.
- Asiatik etorritakoen artean ere ez dugu desberdintasun nabarmenik antzematen.
- Europatik etorritakoen artean, portugaldarrek uste dute errumaniarrek baino irudi hobea dutela euskaldunen aurrean.

Nola esango zenuke hartzen dituztela Euskal Herriko biztanleek zure herrialdeko immigranteak?




Biztanle atzerritar gehienek (%59,6) uste dute euskal herritarrek adeitsu hartzen dituztela euren herrikideak, eta inoiz ez bortxaz (%0,1):

- Uste hau zabalduagoa dago jatorri asiarrak edo amerikarrak dutenen artean. Afrikarrek mesfidantza handiagoa sumatzen dute (%22,1) besteen aldean, batez ere asiarren (%7,9) eta europarren (%13,6) aldean.
- Jatorri amerikarrak dutenen artean, adeitsuen hartzen direnak argentinarrak dira, hori da euren sentipena (%72). Eta, aldiz, kolonbiarrek nabaritzen dute mesfidantza gehien (%23,1).
- Jatorri afrikarrak dutenen artean, aipatzekoa da marokoarren pertzepzioa: %49,1 adeitasun gutxiago nabaritzen du

eta %25,1ek mesfidantza handiagoa. Senegaldarrek axolagabekeria sentimendu handiagoa (%23,8) nabaritzen dute haiekiko, beste atzerritar batzuek baino.

- Asiatik etorritakoen artean, pakistandarrek adeitasun handiagoa (%78,9) sumatzen dute txinatarrek baino (%42,6). Hari beretik, txinatarrek axolagabekeria handiagoa (%28,7) antzematen dutela diote pakistandarrek baino (%10,5).
- Europatik etorritakoen artean, portugaldarrek adeitasun handiagoa (%71) nabaritzen dute errumaniarren aldean (%42,6) eta, hauek, aldiz, axolagabekeria (%28,7) eta mespretxu (%20,2) handiagoa portugaldarren ondoan (%14,6 eta %7,6, hurrenez hurren).

Euskaldunek nola hartu zaituzte?



Etorrin gehienek uste dute (%70,9k) euskaldunek aidetasunez hartzen dituztela eta ez agresibitatez (%0,3):


- Iritzi hau zabalagoa da amerikarren artean (%75,7). Afrikarrek besteek baino aidetasun txikiagoa igartzen dute (%62), axolagabetasun handiagoa (%18,4), konfiantza txikiagoa (%12,6) eta agresibitate handiagoa (%1).
- Amerikatik etorritakoen artean, argentinarrak eta boliviarrak harreman pertsonalean aidetasun handiagoa igartzen dute (%82,2 eta %81,8, hurrenez hurren). Bestalde, kolonbiarrek gainerakoek baino gutxiespen handiagoa antzematen dute (%2,3) eta ekuatortarrek berdintasun harremana igartzen dute (%6,6).

• Afrikatik etorritako pertsonen artean, Afrika Beltzekoek igartzen dute aidetasun txikiagoa (%54,3) eta konfiantza txikiagoa (%15,2). Bai hauek, bai marokoarren, gainerakoek baino agresibitate handiagoa antzematen dute maila pertsonalean (%1,9 eta %1,1).

- Asiatik etorritakoen artean ia ez dago desberdintasunik. Dena den, neskek (%22,7) gainerakoek baino axolagabetasun handiagoa igartzen dute.
- Europatik etorritakoen artean, errumaniarrek antzematen dute aidetasun txikiagoa (%54,7), axolagabetasun handiagoa (%22,8) eta konfiantza txikiagoa (%18,8).

3. Asetasun-eta integrazio-maila


Orokorrean, une honetan duzun bizitzaz pozik zaude ala ez zaude gustura? Zer neurritan?



Atzerritar gehienak nahiko pozik omen daude une honetan duten bizitzaz. Izan ere, eman duten batezbesteko puntuazioa "oso ongiaren" inguruan dabil (6,96 puntu):

- Sentsazio hau handiagoa da, nabarmen gainera, Amerikatik datozenen artean (7,37). Amerikarren atzetik asiarrak (6,86), ondoren afrikarrak (6,57) eta, azkenik, europarrak (6,31).
- Jatorriz amerikarrak direnen artean, argentinarrak, kolonbiarrak eta ekuatortarrak askoz gusturago daude brasildarrak eta boliviarrak baino.
- Afrikatik etorritakoen artean, argeliarrak, marokoarrak eta senegaldarrak askoz gusturago daude Afrika Beltzetik datozenak baino.
- Asiatik etorritakoen artean ez dago desberdintasun nabarmenik.
- Jatorri europarra dutenen artean, portugaldarrak askoz gusturago daude errumaniarrak baino.

Orokorrean, nola ikusten duzu zure burua euskal gizartean? Oso integratuta, nahiko integratuta ala integratu gabe?




Pertsona mailan, etorkinen iritzi orokorra da "nahiko integratuta" daudela euskal gizartean. Batezbesteko puntuazioa 2,2 puntukoa izan da.

- Iritzi hau nabarmenagoa da Amerikatik etorritakoen artean; aitortzen dutenez, Europatik, Afrikatik eta Asiatik etorritakoak baino integratuago daude.
- Amerikatik etorritakoen artean, argentinarrek euren burua besteena baino integratuago ikusten dute, gehien bat ekuatortarra eta boliviarrak baino. Boliviarrak uste dute gainerakoak baino gutxiago integratuta daudela.

- Afrikatik etorritako pertsonen artean ez da desberdintasun nabarmenik antzematen, euren integrazioari buruzko pertzepzio subjektiboari dagokionez.
- Asiatik etorritakoen artean, pakistandarrek euren burua askoz integratuago ikusten dute txinarrek baino.
- Europatik etorritakoen artean, errumaniarrek uste dute portugaldarrak baino askoz gutxiago integratuta daudela.

Oro har, (herrikideei buruz ari garela) zer esango zenuke: euskal gizartean erabat integratua zaudela, nahikoa integratua, ez gutxi eta ez nahiko, gutxi edo batere ez?

1=Oso integratua; 5=Batere integratu gabe




Euren herrikideei buruz ari direlarik, atzerriko immigranteen ustea da ez daudela "aski integratuta" euskal gizartean: 2,41 da batez besteko puntuazioa.

- Amerikar jatorria dutenen artean nabarmenagoa da integrazio-sentipena, jatorri afrikarra, europarra edo asiarra dutenen aldean.
- Amerikar jatorria duten horien artean, berriz, argentinarrak nabarmen dira, besteak baino dezente integratuago sentitzen baitute euren burua. Boliviarrak, berriz, kolonbiarrek baino nabarmen gutxiago integratuta ikusten dute euren burua.

- Afrikar jatorriko pertsonen artean ez da bereizketa aipagarririk nork bere herrialdeko pertsonen inguruan sumatzen duten integrazio-pertzepzioan.
- Asiar jatorriko pertsonen artean pakistandarrek nabarmen integratuago sumatzen dituzte euren herrikideak, txinatarrek eurenak baino.
- Europar jatorria dutenen artean, errumaniarrek askoz gutxiago integratuta sumatzen dituzte euren herrikideak portugaldarrek baino.

Betiko geratzeko asmoa duzu? Ondoko esaldien artetik, zeinek adierazten ditu hobeto zure asmoak?




Etorkin gehienek hemen geratzeko asmoa dute (%59,2); dena den, geratuko ez diren kopurua ere (%28,1) handia da:

- Asiakoek eta Afrikakoek hemen geratzeko asmo garbiagoa dute, europarrek eta amerikarrek baino. Azken hauek argien ikusten dute hemen egonaldi bat egingo dutela eta ondoren euren herrialdera itzuliko direla (%27,9).
- Amerikarren artetik, boliviarrak ikusten dute argien hemen egonaldi bat egitea eta ondoren euren herrialdera joatea (%43,7). Kolonbiarrentzat eta argentinarentzat hemen betiko geratzeko ideiak eta baldintza egokiak aurkituz gero geratzeko ideiak pisu handiagoa dute (%62,4 eta %63,7).

- Afrikarren artean, Marokotik datozenek dute argien betiko geratu nahi dutela (%44,7) eta ez direla itzuliko (%15,9).
- Asiatic etorritakoen artean, pakistandarrek gainerakoak baino gehiago dira gure artean betiko geratu nahi dutenak (%52,6); aldiz, txinarren artean askok baldintzen arabera hartuko dute erabakia (%34,8).
- Europatik etorritako pertsonen artean bi jarrera azpimarratu behar ditugu: errumaniarrek baldintza onen arabera hartuko dute geratzeko erabakia (%39,9) eta portugaldarrek (%31,5) galdetutako gainerakoek baino asmo garbiagoa dute euren herrialdera itzultzeko.

Azken batean, denboran atzera egiteko aukera izango bazenu, berriro aterako zinateke zure herrialdetik alahan geratuko zinateke?



Laburpen gisa: denboran atzera egiteko aukera izango balute, 4 etorkinetik 3k gauza bera egingo lukete; alegia, gure herrira etortzeaz ez dute damurik. Iritzi hau da nagusia talde guztietan nazionalitatearen arabera eta ez da nabari desberdintasun aipagarririk. Hala ere, honako ondorio hauek aipatuko ditugu:

- Pakistanetik eta Argentinatik datozenen artean, euren herrialdean geratzeko ideia bakanagoa da (%8,4 eta %8,9 hurrenez hurren) galdetutako guztien artean baino.
- Berriz irteteko asmoari dagokionez, errumaniarren artean soilik aurkitzen ditugu desberdintasun aipagarriak: denboran atzera egiteko aukera izango balute, %63,1 "baino" ez litzateke aterako eta %26,7 Errumanian geratzeko litzateke.

Ondorioak:

Etorkin gehienak duela bi urtetik sei urtera bitartean iritsi dira. Aipagarria da boliviarrak oso denbora laburrean nola kokatu diren ikustea; horietatik %1 baino ez zegoen hemen 2002. urtea baino lehen.

Ikasketa mailari dagokionez, argentinarrek gailentzen dira; mailarik apalena brasildarrek, errumaniarrek, portugaldarrek eta senegaldarrek dute.

Etorkinen %22,8k aitortzen du legez kontrako egoeran dagoela eta %63,8k baduela nolabaiteko bizileku-baimena. Gainerakoek (%13,4) Espainiako nazionalitatea edo Europako nazionalitatearen bat du.

Etorkinen %8,9 ez dago erroldan sartuta. Gure laginaren kopuru horretatik abiatuta esan genezake, %99ko estatistika-fidagarritasunaz, EAEn bizi diren atzerritarren kopuru erreala %4,95aren eta %5,10aren artean dagoela.

Atzerritarren %69,3 lanean ari da eta %17,8 langabezian dago. Era berean, EAEn bizi diren etorkinen %52k aitortzen du 1.000 euro baino gutxiago irabazten duela hilean, %33k dio 1000 eta 1500 euro arteko irabaziak dituela eta %8k 1500 eurotik gorakoak dituela.

Etorkin gehienei ez diete aditzera eman euskaldunentzat mehatxu-ekonomiakoa direnik. Gainera, orokorrean ez dute euren burua baztertuta eta gutxietsita ikusten.

Uste dute euskal gizarteak aidetasunez hartzen dituela, agresibitate gabe, bai maila pertsonalean, bai euren jatorri bereko guztiak. Guztiarekin ere, etorkinen aburuz euskaldunek erdipurdiko iritzia dute beraiei buruz, ez positiboa.

Orohar, atzerritarrek uste dute gaur egun duten bizimodua "nahiko pozik" egoteko modukoa dela.

Gainera, maila pertsonalean nahiko edo oso integratuta ikusten dute euren burua (%65,9); hala ere, aitortzen dute euren herrialdeetako etorkinetatik erdia baino ez dagoela nahiko edo oso integratuta (%52,1).

Ondorioz, euskal gizartearen bizi diren etorkin gehienek dute bertan geratzeko asmoa, baldintza egokiak aurkitzen badituzte (%59,2). Dena den, etorkin askoren asmoa da hemen denboraldi batean egotea eta ondoren itzultzea; euren herrialdera, lurraldera, herrira, hirira, etab (%28,1).

Azken batean, denboran atzera egiteko aukera izango balute, gehienek berdina egingo lukete: euren herrialdetik atera (%75,6); horiek ez dute damurik herrialdetik atera direlako.

DOKUMENTAZIO ZENTROKO NOBEDADEAK

Ikuspegiaren dokumentazio zentroak helburu nagusi hauxe du: Euskal Herrian migrazio-fenomenoen, kultura-aniztasunaren eta kulturen arteko elkarbizitzaren alorrean egingo diren ikerketa guztietarako informazioa eta bibliografia eskaintzea. Hauxe da Ikuspegiaren dokumentazio zentroan hilabete honetan jasotako nobedadeen hautaketa. Dokumentazio zentroan inolako kontsultarik edo eskaerarik egin nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan. Ondorengo helbidean ere kontsultatu dezakezu gure datu-basea: <http://www.ikuspegi.org>. Webgune horretan, gainera, bibliografiako azken nobedadeak jasotzen ditugu buletin batean.



Izenburua: Atzeritarren Immigrazioa Durangon. Tokiko Immigratio Planaren aurretiko diagnostikoa

Egilea: Cristina Blanco Fernández de Valderrama (zuzendaria)



Izenburua: Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera eta Itxaropenak

Egileak: Juan Luis Fuentes Nogales y Trinidad L. Vicente Torrado (zuzendariak)



Izenburua: La construcción del empleo precario. Dimensiones, causas y tendencias de la precariedad laboral

Egilea: Miguel Laparra Navarro



Izenburua: Inmigración, racismo y xenofobia en la España del nuevo contexto europeo

Egilea: Mª Ángeles Cea D'Ancona



Izenburua: Migraciones y desarrollo. II Jornadas Iberoamericanas de Estudios Internacionales, Montevideo 2006

Egileak: Francisco Aldecoa Luzárraga y José Manuel Sobrino Heredia (coordinadores)



Izenburua: Arraigados. Minorías religiosas en la Comunidad de Madrid

Egileak: Bernabé López García, Ángeles Ramírez Fernández, Eva Herrero Galiano, Said Kirhlani, Mariana Tello Weiss



Liburuez gain, zuen eskura nazioarteko eta estatuko hainbat aldizkari ipintzen dugu. Gure web orrian aldizkari hauek kontsultatu ditzakezue.



EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsultatu ezazu gure web orria: www.ikuspegi.org

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:
 - **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.
 - **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:

Tlf.: 94 601 82 75

Fax: 94 402 35 40

e-mail: info@ikuspegi.org

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitzakezu:
 Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia